


AZTERKETA BULEGOKO BULETINA



AURKIBIDEA:

1. Soilik langabezia utzi duen 4tik 1ek aurkitu du lana azken urtean
2. Sozietate zergaren jeitsiera, patronalari oparia.
3. Gastu muga Aurrekontuak ulertzeko ezinbestekoa.
4. Gizarte-segurantzaren transferentzia, kromoen aldaketa berri bat?
5. Murrizketa gehiago, etxebizitza eskubidea bermatzeko errenta arriskuan
6. B plana aurrera doa.
7. Proposamena: Herrien subiranotasuna aldarrikatzeko, enpresa transnazionalen boterea bertan behera uzteko eta inpunitatearekin bukatzeko ekintza orokorra

1. SOILIK LANGABEZIA UTZI DUEN 4TIK 1EK AURKITU DU LANA AZKEN URTEAN

Biztanleria Aktiboaren Inkestak argitaratutako datuek biztanleria aktiboa azken urtean 15.100 pertsonatan jaitsi dela erakusten dute, hau da, enplegua dutenak edo enplegu bila dabiltzanak gero eta gutxiago direla 2017ko hirugarren hiruhilekotik 2016ko epe berdinerara.

Biztanleria aktiboaren jaitsierak langabetu kopurua jaistea ekarri du. Izan ere, azken urtean 21.400 langabetu gutxiago zenbatu badira ere (2017ko hirugarren hiruhilekoan 151.100 izateraino), soilik langabezia utzi duten 4 pertsonatik 1ek aurkitu du enplegua.

Honen arrazoia enplegua dutenen kopurua azken urtean 5.300 pertsonatan hazi dela da, hau da, langabezia utzi duten 21.400 pertsonetatik oso urrun. Hala eta guztiz ere, langabezia tasa % 11,3an dago oraindik, 28-EBeko batz besteko % 7,6tik urrun, bakarrik Espainiar Estatuak eta Greziak dute langabezia tasa altuagoa.

Azpimarratzekoa da ere enplegua dutenen % 15,7ak lanaldi partziala duela, eta soldatapeko guztien % 22,2ak behin-behineko kontratua.

2. SOZIETATE ZERGAREN JEITSIERA, PATRONALARI OPARIA.

EAJ eta PSEk duela aste batzuk adostutako zerga erreforma autoemendatzeko erabakiaz, honakoa adierazi:

- Iragarri den Sozietate Zergaren jaitsiera ez da bidezkoa eta antisoziala da. Ez da bidezkoa urrats berria delako diru-bilketaren pisua laneko errentetan eroriarazten duen sistema fiskalean sakontzean. Eta antisoziala da diru-sarreraren zati bati uko egiteak, praktikan, zerbitzu publikoen eta prestazio sozialen murrizketa-politiken aldeko apustua sendotzen duelako praktikan.
- Sozietateen Zerga jaitsi izana eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak norabide berean doaz. Aurrekontu-politika eta fiskalitatearen ingurukoak parean daude. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuak Konstituzioaren 135. Artikulua ezartzeko Rajoyren Gobernuarekin lortutako akordiotik abiatzen da, hau da, zorraren ordainketaren lehentasuna ematea bestelako gaien aurretik (osasungintza, hezkuntza, prestazio sozialak...). Gastu-arauak zehazten du gastu publikoaren igoerarentzak muga bat instituzio guztientzat, EAEkoak barne, EAJk ahalbidetu duena eta zeinen ordainketa Madrilekin adostu baituen Eusko Jaurlaritzak.
- Sakoneko akordioa dago EAJ, PP eta PSEren artean desberdintasun sozialak eta pobrezia areagotu dituzten politika neoliberalak ezartzeko. Akordio horiek lan eta bizi-baldintzak zehazten dituzten gaietan ematen diren botazioetan egiten dira ikusgarri. Eta hori, Katalunian 155. Artikulua inposatzen duten alderdiekin egiten du, demokraziaren kontrako eraso zuzena suposatzen duena.

- Gobernuan daudenak patronalaren interesen zerbitzura daude. Patronalak opari berri bat jasotzen du, eta zergen murrizketa berriak eskatzeko bere estrategiatik onurak eskuratzen ditu.

Onartezina da Sozietate Zerga jaitea benetan egin beharko litzatekeena zerga horren bidez bildutakoa igotzea denean. Datu ofizialen arabera:

- Sozietateen Zergaren Europako batzbesteko presio fiskalera iristeko, zerga honen bidez bildutakoak 669 milioitan egin beharko luke gora. Erreformarekin handitu egin dira aldeak.
- EAeko Sozietateen Zergaren tipo efektiboa %16,2koa da EAEn, tipo nominalaren oso azpitik. Hau da, enpresek irabazitan aitortutako 100 euroatik 16,2 baino ez dituzte ordaintzen zerga horrengatik. Eta portzentaia hori jaitsi egingo da proposamenarekin.
- Baina enpresa gehienek ez dute irabazirik aitortzen, hortaz, ez dute ezta euro bat ordaintzen Sozietate Zergagatik. Enpresen %55ak galerak aitortzen ditu. Eta beste %22,9ak esaten du 0 dela bere saldo aedo urtean 6.000 euro baino gutxiagoko irabaziak aitortzen ditu. Bi talde hauek enpresen %78,1 biltzen dituzte.

3. GASTU MUGA, AURREKONTUAK ULERTZEKO EZINBESTEKOA.

2011ko udan Zapateroren Gobernuak eta PPeK konstituzioaren erreforma expres bat egin zuten 135. artikulua aldatuz. Zorraren ordaina instituzio guztientzat lehentasun izateko egin zen aldaketa hori, beste partida batzuen kaltetan, osasuna edo hezkuntza adibidez.

Erreformaren zehaztapena 2012ko apirilean gauzatu zen, Aurrekontuen egonkortasun eta finantza iraunkortasun legearekin, Konstituzio erreforman planteatutakoaz haratago joanik. Lege honek espainiar gobernuari insituzio guztien (Euskal Gobernuak, Nafar Gobernuak eta Diputzaioak) defizit publikoaren zenbatekoa erabakitzeko ahalmena ematen dio. "Regla de gasto" delakoa ere onartu zen, horrela Estatuak insituzioek hurrengo urteetan gastuan izan dezaketen igoeran erabakitzeko ahalmena ere duelarik.

2017ko uztailean Rajoyk, EAJren aldeko botoarekin, boto honek kongresuan proposamenak aurrera egitea ahalbideratu zuen, 2018an Autonomi Erkidegoen defizita BPGren %0,4 izatea eta instituzio guztien aurrekontuak gehienez %2,4ean haztea erabaki zuen.

Gastu publikoa kontrolpean izatea, aurrekontuen gizarte partidak ez handitzea eta zerbitzu publikoen merkantilizazioa eta pribatizazioa lortzea helburua bazen, oraindik ere bada.

Erabaki politiko hauek guztiak administrazioek (Hego Euskal Herrikoak barne) politika propioak egin ahal izateko eraso zuzena dira. Euskal eta Nafar Gobernuaren, Diputzaioen eta Udalen aurrekontu igoera Rajoyren esku dago.

4. GIZARTE-SEGURANTZAREN TRANSFERENTZIA, KROMOEN ALDAKETA BERRI BAT?

Katalunian gertatzen ari denak izan ditzakeen ildoak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak eta EAJK esan dute Gizarte Segurantzaren transferentzia dela Rajoyren Gobernuari aurrekontuetan babesa ematen jarraitzeko baldintzetako bat.

EAJK eta PSE-EEK gobernu osatzeko sinatu zuten akordioan transferentziaren aldarrikapena mugatzen zen Gizarte Segurantzako erregimen ekonomikoaren kudeaketara (alegia, kotizazioak bildu eta prestazioak ordaintzera), eta zehazten zen “kutxa bakarra” delakoa hautsi gabe egingo zela. Beraz, egungo egoerarekiko aldaketa bakarra litzateke bulegoetan errotulu berriak paratzea, besterik ez.

Baina formula konkretua edozein dela ere, oraingo Eusko Jaurlaritzak atzera egin du Lakuak betidanik aldeztu izan duen posizio politikoarekiko:

- Oinarritzko legediaren garapen eta betearaztea ahaztu egiten du. Erabaki den Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketarekin, zerbitzuak antolatu eta administratu ordez leihatila hutsa baino ez litzateke izango. Kotizazioen eta pentsioen kontrolak espainiar estatuaren esku jarraituko luke.
- Honek ez dauka zerikusirik Ekonomia Itunaren sistemarekin; honen arabera diru-sarrerak (kotizazioak) bertan egin beharko lirarteke, baita prestazioen ordaina ere. Kutxa bakarra ontzat ematean Gizarte Segurantzaren Ekonomia Ituna baztertzen da.

Badakigu, aurreko esperientzietan hala gertatu baita, arlo baten transferentzia kudeaketara mugatzen denean, hutsala dela hari buruzko gaitasuna Madrilen esku geratzen denean. Gogoratu enplegu-politika aktiboekin gertatu zena: Erdizkako transferentzia izan zen; espainiar estatuak erabakitako eredu eta politikak bertatik kudeatu besterik ez dira egiten. Honek etengabe arazo larriak eragin ditu bera kudeatzerakoan eta, horrenbestez, jendearen beharrianak asetzen ez dituzten enplegu-politikak.

Gainera, beste bi kontu ere aipatu behar dira. Lehena, engainua da sinestaraztea autogobernua hobetu egiten dela horrelako akordioekin:

- Lehenik, “lorpen” edo transferentzia hori zerbaiten truke iritsi dela izkutatu nahi da, kasu honetan ustelkerian murgilduta dagoen gobernu baten aurrekontu-politika antisozialari babesa ematearen truke, gainera bete-betean estatu autoritario baten tankerako dinamikan sartuta dagoelarik (Katalunian gertatu dena horren adierazgarri).
- Bigarrenik, ez delako egia eskumenetan aurrera egiten denik; benetan kontrakoa gertatzen da. Gizarte Segurantzaren logoaren ordez Jaurlaritzarena jartzea ez da inolako aurrerapidea. Baina gainera, aspaldian ari gara pairatzen birzentralizatze politikak, oinarri-legeak edota Auzitegi Konstituzionalaren erabilpena “*euskal erakundeak botere zentralaren laguntzaile huts bihurtzeko*”.

Horregatik guztiagatik ezinbestekoa da, Gizarte Segurantzako politikei buruz benetan erabakitzeke ahalmena izatea; eta ez erdipurdiko transferentzia baldintzatuak. Aspaldidanik

galdegin izan dugu Euskal Herrian bizi garenon eta lan egiten dugunon bizi- eta lan-baldintzak bertan erabaki behar direla. Horrek eskatuko luke eskumen betea izatea pentsioei, eskubide laboral eta sozialei buruz erabakiak hartzeko.

Pentsioak hobetzea, batik bat apalenak, eta haien erosteko ahalmena bermatzea beharrezkoa da. Hemen hartu nahi ditugu erabakiak pentsio-sistemaren erreformatan ezarri diren murrizketa eta mozketak bertan behera gera daitezzen, horiek gero eta gehiago aldentzen baikaituzte bizimodu duina egin ahal izateko diru-sarrera nahikoak bermatzeko helburutik.

Euskal erakundeek kudeatzen badituzte baliabide ekonomikoak Ekonomia Itunean ezarritako irizpideak aintzat hartuko dira.

5. MURRIZKETA GEHIAGO, ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA ARRISKUAN

Abuztu erdialdera eman dute ezagutzera etxebizitza bat legez okupatzeko edota etxebizitzarako prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretu-proiektua. Berau aztertu ondoren ikusi dugu bere garaian kritikatu genuen aurreko zirriborroko edukiak mantendu direla, eta zehaztu gabe dagoela oraindik hainbat xehetasun garrantzitsu; izan ere, horrela dagokion sailburuak erabaki baitezake azken edukia zein den.

Gogora dezagun dekretu-proiektu honen garapena Etxebizitza Legea (3/2015) erabakitzearen ondorio dela; legearen alde bozkatu zuten 2015eko ekainean EH Bilduk, PSE-EEk eta UPyDk; erabateko garrantzia zuten puntu batzuk araudian garatzeko geratu ziren. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren 2017ko aurrekontuen xedapen gehigarri batek indargabetu egiten du Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO), eta honen ordez Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) sortzen du.

Dekretu-proiektuak herritarren indefentsio eta pobrezia aregotuko du. Hauek dira xehetasun nagusiak:

1. Aitortzen da etxebizitza eskuratzeko eskubidea, alokairu erregimenean edota kanondun esleipeneko bizileku dotazionalaren erregimenean. Hala ez bada, EPEa aitortuko da, ekonomikoa eta aldizkakoa, etxebizitza edo bizilekua legez okupatzeko xede berarekin.

2. Dekretu-proiektuak honako eskakizunak ezartzen ditu:

- Bizikidetzeta-unitateko kide kopuruaren arabera diru-sarrera muga:
 - 3 kide edo hortik gorako bizikidetzeta-unitateentzat urteko 15.000 euro arteko guztizko sarrerak
 - 2 kideko bizikidetzeta-unitateentzat urteko 12.000 euro arteko sarrerak
 - kide bakarreko bizikidetzeta-unitateentzat 9.000 euro arteko sarrerak
- Soilik alokatzeko etxebizitzaren eskatzailea izan behar da, eta eskatzaileen erregistroan gutxienik 3 urtez egon behar da izena emanda.

Eskakizun hauek legean eta dekretu-zirriborroan ezarritako berberak dira, aldaketa txiki batekin: aurrez izena emanda egon behar den epea 4 urtetik 3ra murriztu da.

Bere garaian esan genuen eskakizun hauek (hala ekonomikoak nola alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa izena emanda egon beharreko epeaz) etxebizitza eskuratzeko eskubidea urratuta duten herritar gehienak baztertzen dituztela.

- Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) sortzen da, eta ezartzen da ezin dela beste laguntza batzurekin batera jaso: EPO, gazteen emantzipazioko oinarrizko errenta eta alokairu gastuekin lotutako Gizarte-Larrialdietarako Laguntza (GLL). Haatik, ez da zehazten zenbatekorik eta esaten da prestazioaren gehieneko hileko zenbatekoa sailburuaren aginduz ezarriko dela, urte natural bakoitzeko hamabi hilabeteetan.

- Ikuskaritza eta kontrolari dagokionez, aukera ematen da administrazioak hiru hilez prestazioa ofiziosz eten dezan, hau jasotzeko aitortza eragin zuen zergatietako bat ez dela bete adierazten duen zantzuren bat agertuz gero.

- Dekretuak ez du ez du zenbateko ekonomikorik zehazten, ez errenta zein kanonei, ezta EPEari dagokionez ere. Gauza bera gertatzen da hauen eguneratzerakin eta diru-sarreraren gehieneko mugekin: guztia sailburuaren esku geratuko da.

Dekretua aurrera aterako balitz EPO desagertuko litzateke, eta honek ondorio oso larriak litzuzke:

- 1) Murrizketa latza litzateke, gizarteko pertsonarik ahulenen eskubideen aurkako eraso larria. Prestazio berria jaso ahal izateko eskakizunak oso zorrotzak dira, orain arte EPOa jasotzeko indarrean zeuden eskakizunak baino gogorragoak. Esaterako, EPO eskatzeko ez da beharrezkoa Etxebideko erregistroan aurrez izena emanda egotea (aurrerantzean 3 urte eskatuko dira, eta soilik alokairuko etxebizitza eskatu dutenak hartuko dira aintzat).
- 2) Beraz, prestazio berriak EPOak baino askoz onuradun gutxiago izango du. 2017ko abuztuan 28.291 familiak jaso dute EPOa. Araudi berriarekin hauetako gehienak laguntzarik gabe geratuko lirateke, ez bailituzkete beteko prestazio berria jasotzeko ezarritako eskakizunak.
- 3) Eusko Jaurlaritzak 2017rako erabaki duen aurrekontuak agerian uzten du egin nahi den murrizketaren tamaina: EPOrako 89 milioi euro aurreikusten dira, eta 2 milioi besterik ez prestazio berrirako. Helburua da gastua orain artekoa baino askoz txikiagoa izatea, hain zuzen txiroenen lepotik.
- 4) Aitortutako eskubidea zer da? Esaldi lauso bat: administrazioek kolektibo honen eskura jarriko ditu dauden etxebizitzak (halakorik badago) errenta edo kanon baten

truke. Administrazioak ez dituzte derrigortzen etxebizitza babestuen kopurua gehitzera.

2018 aurrekontuak inoiz baino sozialagok direla badiote ere, diru-kopuruek pobrezia finkatu eta handitzen dute, eta arauak murrizketa, indefentsio eta kriminalizazioa areagotzen du. Proiektuak prestazioaren zenbatekoa 250 eurotan gehienez izozten du.

Gainera, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzen dituztenei ere kaltea eragingo litzaieke. Milaka bizikidetz-unitateri EPOa jasotzeko eskubidea kentzeak alokairurako GLL eskatzaileak gehitzea ekarriko luke. Bizitza erraztea baino, jasotzaile izaera zigortzen da.

6. B PLANA AURRERA DOA

Pasadan urrian, Lisboan, B Planaren hirugarren bilera ospatu zen, beti bezala, bestelako Europa bat beharrezkoa eta posiblea delako aldarrikapenarekin.

ELAK "Europar gizarte eskubideen borrokan gizarte mugimenduen papera"z dihardu zuen mahaian parte-hartu zuen. Kapitalaren erosen aurrean eta antolakuntza suposatzen duen guztiaren aurka joateko asmoaren aurka, sindikalismoaren beharraz, sindikatua indartzea, eta langileria eta lan zentroak antolatzea ezinbesteko tresna direla azpimarratu genuen. Neoliberralismoak bere hegemonia mantentzeko asmoz, proiektu sindikal, sozial eta politikoko progresistak kolokan jartzen ditu, horregatik kontrapoterezko proiektu alternatiboa izatea ezinbestekoa da.

Bide honetan bakarrik ez egoteko beharra ere adierazi genuen, gizarte aliantzen beharra gogora ekarriz. Alternatibean Herria, Nafarroako parlamentu soziala eta EHko eskubide sozialen karta bezalako adibideak politikak errotik aldatu eta botere ekonomiko eta alderdi politikoetatik at lan egin daitekeela adierazteko. Diagnostika eta lan propioa egiteko kapaz den gizarte mugimendua beharrezkoa da baita, EHan zein Europan.

Jarraitu dezagun lanean, izan gaitezen adibide, asko daukagu hobetzeko eta egiteko!

7. PROPOSAMENA: HERRIEN SUBIRANOTASUNA ALDARRIKATZEKO, ENPRESA TRANSNAZIONALEN (ETN) BOTEREA BERTAN BEHERA UZTEKO ETA INPUNITATEAREKIN BUKATZEKO EKINTZA OROKORRA

Kanpaina 200 gizarte mugimendu, sare eta erakundeek osatzen dute, eta sektore, herrialde eta eskualde ezberdinetako enpresa transnazional zehatzen aurkako salaketa taldeek ere parte-hartzen dute.

Enpresa transnazionaleri aurre egiteko helburuarekin, esperientzi ezberdinen hartu emanak, eztabaidak bultzatzen dira bertan, hau da, Herrien erantzuna da, mundu mailan eta egituran, eta horien aurkako borrokan elkartasuna eta babes adierazteko moduan bihurtu da.

Politikoki, Herrien Nazioarteko Ituna proposatzen da;

- Enpresa transnazionalen boterearen aurrean planteatzen diren mugimenduen

erresistentziak eta martxan jartzen diren alternatiben ezagutzera eta laguntza emateko

- Nazio Batuetan enpresa transnazionalen praktikak eta hauen aldi oroko giza eskubideen urratzea gelditzea baliozkoa den legedian parte-hartzeko.

Kanpainak herri, eskualde ta mundu mailan ETNen aurkako erresistentziak sakondu nahi ditu.

ELA kanpainaren kide da, horregatik Ginebran ospatutako azken topaketa egon izana. EHan ETek inpunitate osoz dabiltzala salatu genuen eta botere politikoaren onspenarekin egiten dutela argi utzi genuen. Deslokalizazio horren adibide argia da. General Electric, Daewoo, Arcelor Mittal, etb. Ohikoa duten, enplegu suntsiketari eta lan prekarietateari aurre egin diegu eta hortan jarraituko dugu, Gure eguneko borroka hori da, jendearen egunerokotasuna, langileriarena.

2017a kanpainaren mobilizazio urtea izan da, Buenos Airesen bukatuko dena abenduaren 10etik 13ra. Han Herrien Goi-bilera ospatuko da, Munduko Merkataritza Erakundearen XI bilera ospatuko dela aprobetxatuz. Merkataritza askea salatuko da, herrien eta naturaren ustiapena agerian jarri eta sistema produktibo eta komertzialari, kapitalismoari azken finean, alternatiba emango zaio.

EHan ere mobilizazioak egingo dira, kartatik antolatutakoa abenduaren 11an izango da 19etan Bilbon, Arriaga Plazan.

